Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

1367

AGINDUA, 2010eko abenduaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Arrigorriagako udalerriko Ollargan auzoko 2. blokean babes ofizialeko 54 etxebizitza esleitzeko prozedura amaitzeari buruzkoa.

GERTAKARIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 21eko Aginduaren bidez, Arrigorriagako udalerriko Ollargan auzoko 2 blokean, babes ofizialeko 54 etxebizitza esleitzeko hautaketa-prozesua hasi zen eta hainbat zehaztasun finkatu ziren.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko apirilaren 19ko Aginduaren bidez, Construcciones Amenabar SA enpresari esleitu zitzaion Ollargan auzoan (Arrigorriaga) 54 etxebizitza eta eranskin eraikitzeko obren kontratua. Obrak egiteko epea 20 hilabetekoa zen. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko urriaren 1eko Aginduaren bidez, kontratua aldatzea erabaki zen, eta obrak egiteko epea 3 hilabete luzatu zen.

3.– 2008ko urriaren 8an, Arrigorriagako udalerriko Ollargan auzoko 2 blokeko, babes ofizialeko 54 etxebizitzen esleipendunak hautatzeko zozketa egin zen.

4.– 2008ko azaroaren 5ean, goian aipatutako etxebizitzen obrak erabat etetea onetsi zen, orubearen zorupean antzinako meazuloak aurkitu zirelako. Ondorioz, meazulo horien egoera aztertu behar zen, bai eta eraikinaren zimendatzean izango zuten eragina ere.

5.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2009ko abuztuaren 25eko Aginduaren bidez, Euroestudios SL enpresari esleitu zitzaion Arrigorriagako Ollargan auzoko 2. blokearen orubearen egonkortasun-azterlana egitea.

Azterlan horren ondorioetan adierazi da gainazalean eraikitzea ez dela gomendagarria, meatzea hondoratuz gero kalteak jasan ditzakeelako. Horrez gain, eremua ixtea gomendatzen da, jendea ez sartzeko.

6.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko apirilaren 22ko Aginduaren bidez, Arrigorriagako Ollargan auzoko 2. blokean 54 etxebi-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

1367

ORDEN de 23 diciembre de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de terminación del procedimiento de adjudicación de 54 viviendas de protección oficial en el bloque 2 de Ollargan, en el municipio de Arrigorriaga.

HECHOS

1.– Mediante Orden de 21 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos sociales, se inició el proceso de selección y se determinaron diversas especificaciones para la adjudicación de 54 viviendas de protección oficial en el bloque 2 de Ollargan, en el municipio de Arrigorriaga.

2.– Mediante Orden de 19 de abril de 2007, del Consejero de Vivienda y Asuntos sociales, se adjudicó el contrato de las obras de construcción de 54 viviendas y anejos en Ollargan-Arrigorriaga a la empresa Construcciones Amenabar, S.A., con un plazo de ejecución de 20 meses. Mediante Orden de 1 de octubre de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos sociales, se acordó la modificación del contrato incrementándose el plazo de ejecución en 3 meses.

3.– El 8 de octubre de 2008 se celebró el sorteo para seleccionar a los adjudicatarios de las 54 viviendas de protección oficial en el bloque 2 de Ollargan, en el municipio de Arrigorriaga.

4.– El 5 de noviembre de 2008 se aprobó la suspensión total de las obras correspondientes a las viviendas arriba citadas, en base a la detección de antiguas galerías mineras en el subsuelo del solar que obligaban a realizar un estudio del estado de las mismas y su incidencia en la cimentación del edificio.

5.– Mediante Orden del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes de 25 de agosto de 2009, se adjudica a la empresa Euroestudios, S.L. el Estudio de Estabilidad correspondiente al solar del bloque 2 de Ollargan en el municipio de Arrigorriaga, firmándose el correspondiente Contrato el 8 de septiembre de 2009.

En las conclusiones de dicho estudio se indica que no es recomendable edificar en la superficie, ya que podría verse afectada en caso de que se produjese el hundimiento de la mina, y se recomienda cerrar la zona para impedir el acceso público.

6.– Mediante Orden del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes de 22 de abril de 2010, se inicia el expediente de resolución del contrato de

zitza eraikitzeko obren kontratua suntsiarazteko espedientea hasi da. Espediente hori izapidetzen ari da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari dagokio Agindu hori ematea, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4.a) artikuluan jasotakoaren arabera.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 87.2 artikuluak hau xedatzen du: prozedura amaitu egingo da, era berean, gerora sortutako arrazoiak direla-eta prozedura ezin bada inola aurrera eraman. Emango den ebazpenak, betiere, arrazoitua izan behar du.

3.– Bestalde, lege bereko 42.1 artikuluaren bigarren paragrafoak hau xedatzen du: preskripzioa gertatu, eskubideari uko egin, prozedura iraungi edo eskaeran atzera eginez gero, baita prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere, gertatutako ingurumariak adieraztea, horixe izango da ebazpena, betiere, jazotako egitateak eta aplika daitezkeen arauak zehaztuta.

4.– Euroestudios SL enpresak eginiko egonkortasun-azterlanetik ondorioztatzen da ezinezkoa dela gainazalean eraikitzea. Izan ere, hondoratu egin daiteke, zorupean antzinako meazuloak daudelako. Hori gerora sortutako arrazoia da, eta, horren eraginez, ezinezkoa da Arrigorriagako Ollargan auzoko 2. blokean proiektatutako babes ofizialeko 54 etxebizitzak esleitzeko prozedurarekin jarraitzea. Ondorioz, bere garaian xede horrekin hasitako prozedura amaitzea dakar, etxebizitzak ez direlako eraikiko.

Hori guztia dela-eta, aipatutako aginduak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita,

EBATZI DUT:

Arrigorriagako Ollargan auzoko 2. blokean proiektatutako babes ofizialeko 54 etxebizitzak esleitzeko prozedurarekin jarraitzea ezinezkoa dela adieraztea, gerora sortutako arrazoiak direla-eta. Horregatik, prozedura hori amaitu egingo da.

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko

las obras de construcción de 54 viviendas en el bloque 2 de Ollargan en el municipio de Arrigorriaga. Dicho expediente está en tramitación.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.– Corresponde al Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes dictar esta Orden, en virtud de lo previsto en el artículo 4.a) del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

2.– El artículo 87.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común dispone que también produce la terminación del procedimiento la imposibilidad material de continuarlo por causas sobrevenidas. La resolución que se dicte deberá ser motivada en todo caso.

3.– Por su parte, el segundo párrafo del artículo 42.1 de la misma Ley añade que en los casos de prescripción, renuncia del derecho, caducidad del procedimiento o desistimiento de la solicitud, así como la desaparición sobrevenida del objeto del procedimiento, la resolución consistirá en la declaración de la circunstancia que concurra en cada caso, con indicación de los hechos producidos y las normas aplicables.

4.– Del Estudio de Estabilidad de la empresa Euroestudios, S.L. se deduce la imposibilidad de edificar en la superficie, ya que podría hundirse debido a la existencia de antiguas galerías mineras en el subsuelo. Ello constituye una causa sobrevenida que imposibilita materialmente la continuación del procedimiento de adjudicación de las 54 viviendas de protección oficial proyectadas en el bloque 2 de Ollargan, en el municipio de Arrigorriaga. En consecuencia, produce la terminación del procedimiento iniciado en su día con tal objeto, toda vez que las viviendas no se construirán.

Por todo ello, vistos los preceptos citados y los de general aplicación,

RESUELVO:

Declarar la imposibilidad sobrevenida de continuar con el procedimiento de adjudicación de las 54 viviendas de protección oficial proyectadas en el bloque 2 de Ollargan, en el municipio de Arrigorriaga, y la consecuente terminación del mismo.

Contra la presente Orden procede interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses con-

epean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 23a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

tados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.